

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 209. zkia. 2013ko otsaila



**18.
Korrikan**

**euskara
ikasleak**



protagonista

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA

Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA

Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA

Analisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA

Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA

LASER diodoa

Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak

Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin

Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak

Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA

Hortzoi-birsortzea

Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA

Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA

Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA

CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA

Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara



LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz

GALDETU



GALDETU

2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.

Ospea duen zentroa gara.



ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:

Pazientea jaso

eta etxera itzuli

GALDETU



IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR

Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua hortz-inplanteetan*

*Soilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea
Higienea **525 €**
BESTELAKO PROMOZIOAK: **GALDETU**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone
Amesti, Ibaia Azagirre,
Leire Elustondo, Estibalitz
González, Asier Ibaibarriaga,
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Amaia Arriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza
eta Juanmi Bravo.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Ermuko
Merkatarien Elkartea, Leire
Elustondo, Ana Gómez,
Estibalitz González, Asier
Ibaibarriaga, Xabi
Iturriagagoitia,
LAB sindikatua, Valentin
Mugarza, Carmelo
Oyarzabal, Ana Salvador,
Topagunea eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Olatz Loiola, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.340 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

TXANO AMILOTXA, Herrerillo capuchino. *Cristatus cristatus*



Hegazti bakoitzak bere berezitasuntxoak; batzuen deigarri-
goa zalantza barik. Multzo horretan txinbo burubeltz hau,
bere espezie lagunengandik ondo desberdintzen duen
buru gaineko gandor zuri-beltz horren jabe.
Gominarekin gogortzeko premia barik, tente ikus-
ten zaio eta arriskuaren arabera gehiago edo
gutxiago mugituko du, radar salatariaren pare.
Txotxina txikia dela? Hau ere ez da ba handia!
Basorantz jotzen du beti, pinudi eta arboladietara,
hantxe topatzen ditu-eta elikagai dituen koko eta
haziak zein habia egiteko arbola-zuloak, sarritan
beste txoriren batek atondutakoa aprobetxatuz.

Alperrontzia halakoa! Urkon, Oizen, Eitzagan... gutxien
pentsatzen den lekuan agertu daiteke.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN 16
Alejandro Martínez, Mexiko	Mari Jose Goigogana
ELKARRRIZKETA5-7	KIROLZALE 17
Ana Salvador	Ander Santos eta Irene Pérez
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Asier Araiztegi eta Ander Olalde	Baina, Korrika... zergatik?
ERREPORTAJEA 10-11	SALEROSKETAK 19
Badator 18. Korrika	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13	ANTZINAKOAK.....20
Uni Eibar-Ermuko ikasleen proiektuak	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15	KALEKO INKESTA21
Kike Amonarriz / Unai Ramos	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Alejandro Martínez

Sorterria duen Mexiko DF utzi zuen Alejandrok duela 6 urte. Vancouverren (Kanada) urtebeteko geldialdia egin eta horren ostekoak gure artean eman ditu 43 urteko gizon lasai honek.

- Mexiko Hiria arriskutsua dela diote. Nolako zen zure bizitza bertan?

Normala, lasaia: lana, zaletasunak... Leku arazotsua den arren, bertan bizi diren ia gehienak ohituta daude. Zeramika margotzen egiten nuen lana, maiolika eran. Gainera, musika ikasi nuen eta 20 urte nituenetik ganbera-musika talde batean jotzen nuen.

- Eta zer dela eta utzi zenuen Mexiko?

Ermuko neska batekin ezkondu nintzen. Bera Vancouverren bizi zen garai hartan eta nire lehengusinarenean laguna zen. Mexikora bisitan etorri ziren, elkar ezagutu eta berarekin bizitzera joan nintzen Kanadara.

- Aldaketa erraza izan zen?

Ez, oso gogorra egin zitzaidan. Hizkuntzak ez du barkatzen eta nik, ingelesez, oinarrikoena baino ez nekien. Emigratzen nuen lehen aldia zen eta nire ordura arteko bizitza ahaztea asko kostatu zitzaidan. Zeretik hasi behar izan nuen: jabetxe batean hasi nintzen platerak garbitzen, etxeak margotzen...

- Ermura etortzea samurragoa izan zen?



Bai, hizkuntzak hobeto sentiarazi ninduen eta hemen dudana lana dezente gustatzen zait: entretenigarria da eta beste gauza batzuk egiteko denbora lagatzen dit. Nire emazteak bat-batean erabaki zuen hona etorri nahi zuela eta nik uste nuen honek Andaluzia eta Mediterraneoarekin zerikusia zuela.

- Harrituta geratuko zinen, ezta?

Bai, baina batez ere jendeak harritu ninduen. Esaterako, Mexikon batek hitz egiten duenean, amaitu arte itxaroten dute besteek; hemen batak bestearen gainetik hitz egiten du. Bestalde, paisaia ikaragarria iruditzen zait; eguraldia, aldiz, ez zait gustatzen oso aldakorra delako.

- Zer botatzen duzu faltan?

Nire familia. Emaztearen familiarekin egoteko asmoarekin etorri ginen hona, baina bere gurasoak orduan erretiratu eta etxea erosi zuten Espainiako hegoaldean. Latinoamerikan,

orokorrean, familiaren kontzeptua ezberdina da. Bigarren eta hirugarren lehengusuekin harreman handia dago eta familiak erraldoiak dira! Hemen, berriaz, lagunek pisu handiagoa daukate.

- Mexikora bueltatzen zara?

Bost urteotan 3 bider joan gara eta ama ere etorri izan da.

- Hemen geratzeko asmoa duzu?

Zaila da esatea. Ni oso gustura nago hemen eta ez naiz oso abenturazalea, baina nire emaztea leku berriak ezagutzeko prest dago beti. Vancouverrean bueltatu edota Mexikora joatea ere pentsatu genuen, baina ez da erreza han 3 umeekin bizitzea.

- Euskara ikasteko asmorik baduzu?

Hona heldu nintzenean Udalaren Aisa ikastaroa egin nuen eta etxean ere egunero entzuten dut. Aurten, behar bada, serio hartu eta ikasten hasiko naiz, berandu egin baino lehen.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Ana Salvador, Espainiako Iktiosiaren Elkarteko bokala:

“Nire gaixotasuna ikertzeko aukera izan nahiko nuke”

Otsailaren azken egunean (28an edo 29an urtearen arabera) Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Sekula entzun ez ditugun gaixotasunek, ezagutzen ez ditugun sintomek, ikertu ez diren gaitzek eta aurkitu ez diren botikek, besteak beste, gaixo hauen errealitatea osatzen dute. Gai honi buruz gehiago jakiteko Ana Salvadorrekin hitz egin dugu. 38 urte ditu, Biokimikan doktorea da eta gaixotasun arraroa pairatzen du. Gainera, Espainiako Iktiosiaren Elkarteko zuzendaritza batzordeko bokala da eta haren ordezkaria European.

- Zer da Gaixotasun Arraro bat?

10.000 biztanletik bosti baino gutxiagori erasaten dien gaixotasuna. Mundu osoan 6.000 eta 8.000 gaixotasun arraro inguru daudela estimatzen da. Gaixoei dagokienez, Europar Batasunean 30 milioi gaixo omen dago, Espainian 3 milioi eta Euskadin 300.000.

- Horrenbeste gaixotasunek badute zerbait komunean?

Oro har gaixotasun genetikokoak dira, ez dute sendabiderik eta batzuk endekapenezkoak dira. Ezagunenak, beharbada, fibrosi kistikoa, Duchenne-ren muskulu-distrofia progresiboa, Angelman sindromea eta katumiuaaren sindromea dira.

- Zein gaixotasun daukazu zuk?

Iktosia, larruzalaren eritasuna da. Berau pairatzen dugunok azala oso lehorra daukagu eta ezkatat estalia, arrain bat bezala. Hori dela eta, 'arrain azala' ere esaten zaio gaixotasun honi.

- Horrez gain, zein beste sintoma ditu gaixotasun horrek?

Ezin dugula transpiratu, esaterako. Esfortzu bat egiten dugunean, gorri-gorri jartzen gara eta gure gorpuzaren tenperatura igotzen da eta hori arriskutsua izan daiteke. Kasu larrietan, arazoak izaten dira begietan, belarrietan, azazkaletan...

- Zenbatek jasaten du Iktosia Euskadin?

Iktosiaren Espainiako Elkartearen (ASIC-en) izena eman dutenak baino ez ditugu eza gutzen: Euskadin 6 lagun daude eta Espainian 75. Baina estimazioen arabera, 300 eta 600 kasu inguru dago.

- Gaixo guztien zerrenda izatea mesedegarria litzateke?

Bai. Alde batetik, gaixotasun arraroen erregistroa egiten ari da Karlos III.a Osasun Institutua eta beste aldetik, Santiagoko Fundación Pública Galega de Medicina Xenómica-SERGAS-ek gure gaixotasunaren eragileak diren gene-mutazioak ikertzeko asmoa dauka. Horretarako laguntza eskatzen digute eta, gure analisi genetikoak bidali behar diegu edota, analisi genetikoak ez dutenak, odol-laginak bidali ditzakete. Horri esker, genearen mutazioen mapa zehatza izango dugu. Ni kolaboratzeko prest nago, nola ez! Guztion analisi genetikoak izatea garrantzitsua litzateke aurrerapausoak eman ahal izateko.

- Medikuek zenbaterainoko informazioa dute?

Mediku askok ez dakite gaixotasun hau zer den ere eta ezjakintasun hori delata eta, astakeriak esaten dituzte. Ni jaio nintzanean, asko jota hilabete biziko nintzela esan zioten medikuek nire gurasoei. Gaur egun ere horrelakoak esaten dituzte askotan eta onartezina da. Zorionez, Internet daukagu informazioa bilatzeko eta gure



gaixotasun bera duen jendearekin bizipenak konpartitzeko. Eta nire ikuspuntutik inportanteena dena, bakarra zarela ez sentitze.

- Garrantzitsua da besteekin hitz egin ahal izatea?

Bai, bat-batean atea irekitzen zaizkizu. ASIC 2000. urtean jarri zen martxan eta ni 2005ean egin nintzen bertako kide. ASIC nire bigarren familia da: laguntza jaso eta eman dezakezu, zeintzuk krema erabili komentatzen dugu eta iktosia duten umeak nola hazten diren ikusten duzu. Batzuentzat oso garrantzitsua da norberak duen gaixotasun bera daukan pertsona bat ikustea. Urtero jardunaldiak egiten ditugu Madrilan eta Elkartearen batzarra Burgosen egin genuen iazko abenduan. Urtero birritan, gutxienez, elkartzen gara.

- Eta kaleko jendeari dagokionez, askotan azaldu

behar izan dituzu zure gaixotasunaren ingurukoak?

Bai, baina euren jarreraren arabera zure erantzuna ezberdina da. Hala ere, kalera ateratzea oso garrantzitsua da. Jendeak zu ikustea, gaixotasuna sozializatzea. Jendeak ezagutzen ez duena baztertzeko joera du.

- Botika asko hartu behar dituzu?

Ez, krema baino ez, baina sakratua da. Kontua da medikuek laborategiek eman dako kremak gomendatzen dituztela askotan, guri mesede egiten diguten jakin barik. Interes handia dago medikamentuen atzean!!

- Ematen dituzuen krema horiek finantzatuta daude?

Euskadin ez daude finantzatuta, baina Katalunian, Valentzian eta Gaztela eta Leonen bai, ordea. Kosmetika eta luxuko artikulua direla esaten digute hemen eta gure poltsikotik ordain-

“Jendeak ezagutzen ez duena baztertzeko joera du”



Drogeteniturrri, 209 zkia.



du behar ditugu. Baina ez da luxua, goiz eta gauz bota behar dugu, nahitaez. 200 euro gastatzen ditut gutxienez hilero eta betirako. Elbarritasun portzentajea badaukat, baina ez dut ezer kobratzen ez naizelako mini-mora heltzen.

- Eta ez dago bestelako medikamenturik?

Pilulak ere badaude, baina denontzat ez dira egokiak. Hala ere, gauza bitxia gertatzen da gure medikamentuekin. Ikertu egiten da eta gaixoei ondo datozkigun medikamentuak sortzen dituzte, baina orduan 'botika umezurtzen' kontua dator.

- Zer dira botika umezurtzak?

Industria farmazeutikoek komertzializatu nahi ez dituzten medikamentuak. Gaixo gutxi garenez, ez da errentagarria.

- Eta nola konpondu daiteke arazo hori?

Ez dakit konponbiderik daukan. Dirua da arazoa, beti bezala. Hain gutxi garen... Ikerketan dirua gastatzen da baina emaitzekin ez da ezer egiten, medikamentuak ez dira salgai ipintzen, penagarria da!

- Zaila ematen du...

Niretzako ez da zaila, motela baizik. Burokrazia larregi dago, bai honetan zein beste kontu batzuetan ere.

- Zuk Biokimikan dokortza egin duzu. Zure gaixotasunari buruz ikertzeko aukerarik izan duzu?

Ez, kolesterolaren ingurukoak aztertzen ibili naiz baina aukera izango banu, nire gaixotasuna aztertu nahiko nuke.

- Eta zein da zure zeregina ASIC-en?

Bertako zuzendaritza batzordeko bokala naiz eta be-

"Gure botikak ez dira salgai ipintzen, ez dira errentagarriak"

rau ordezkaten dut ENI-n (European Network for Ichthyosis-en). ENI eta EURORDISekin (Gaixotasun Arraroen Europako Elkartearekin) harremanetan egon behar naiz eta, batez ere, idazkariari lagundu, sare sozialetan eragin eta gure ekimenak zabaldu behar ditut. Martxoaren 3an Madrilan elkartasun lasterketa egingo duela FEDERekin (Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioak) eta Bilbon ireki den denda solidarioa ezagutaraztea, besteak beste. Denda hori DEBRAk zabaldu du, Epidermiolisis Bullosa Elkarteak ('tximeleta azala' deituriko gaixotasunaren elkarteak). Gainera, ikerketarako fondoa sortzea bultzatu nuen eta horretarako dirua bildu ahal izateko 'Cuando me encuentres' ipuina argitaratu dugu.

- Zer dira 'erreferentzia-zentroak'?

Gaixotasun zehatz batean adituak diren medikuak dituzten zentroak dira. Gaixotasun batean espezializatutako langileak dira: sintoma guztiak ezagutzen dituzte, tratamenduak, ikerketen in-

formazio zabala dute... Badakigu ezin dela erreferentzia-zentroa autonomi guztietan ipini, baina berebiziko garrantzia dute. EURORDISek zentro horiek arautuko dituen proiektua du abian eta 2015ean martxan ipiniko da.

- Nola daude beste herrialde batzuetan?

Hego Amerikan, esaterako, oso galduta daude, beste gauza batzuen artean, azpiegitura egokirik ez dutelako. Iazko urrian Bruselan egindako Gaixotasun Arraroen eta Medikamentu Umezurtzen VI. Kongresuan egon nintzen eta Espainia, zentroen antolaketan, aurreratuena dela esan ziguten. Guk ez dugu sumatzen...

- Non lortu daiteke informazio gehiago?

Hainbat webgunetan: www.ictiosis.org, www.enfermedades-raras.org, www.eurordis.org/es, www.creenfermedadesraras.es. Gainera, 2013a Espainiako Gaixotasun Arraroen urtea izendatu du Gobernuak. Ez dakit honek zerbaiteko balioko duen, baina tira!

Dorleta Vidal



Iktiosia. ASIC aldizkaria.



URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUEKILORE

Asier Araiztegi: “Norberan herrixen moduan ez da iñun egoten!”

22 urte ditu Asierrek. Industria Ingeniaritza Teknikoan ikasketak egin eta Galesera juen zan irailien.

- *Zer dala eta juen zara bertara?*

Egoerie ikusitte, inglesa hobetzeko asmoz ta ikasketak segitzeko etorri nintzen Wrexhamera. Aurretik eginde daukazen ikasketekin loturie daukenez eta kotxien mundue asko gustatzen jatanez, Performance Car Technology izeneko karreriere egitten nago hemen.

- *Noiz arte gelditzeko asmue daukezu?*

Dana ondo badoie kurtsue maiatzan azkenengo astien amaittuko dot eta orduen bueltatzeko asmue dauket, norberan herrixen moduen ez da iñun egoten da... jejeje.

- *Egunerokotasunien zer egitten dozu?*

Klasiek, proiektue eta ingeleseko klasien artien, egune nahiku beteta eukitten dot. Halan da be saiatzen naz inguruek bisitau eta kirol pixkat egitten, etxeko biherrak denporie ixten deustienien, klaro!

Nun eta norekin bizi zara?

Ikasle etxe baten bizi naz, neska lagunaz eta beste 9 lagunekin. ONUn bizi gaiela diñue etxekuek, izen be, katalan bat, bi ingeles, bi frantsez, malayo bat, Ugandako

bat ta Txinako bat bizi gara alkarrekin.

Zer gustatzen jatzu gehixen hortik? Eta gitxien?

Hemengo etxien estilue gustatzen jata gehixen. Herri haundixe izen arren, ixte ez da pisuik ikusten ta honek herrixai beste itxura bat emoten deutse. Herri barruetan berde guniek mantentzeko daukien ohitturie be gustatzen jata. Eguraldixe da gitxien gustatzen jatana. Negu bueltan oso goiz illuntzen dau eta klima hotza da hemen.

- *Ezerk harrittu zaittu?*

Bizimodu desberdine dala esango nuke. Adibidez, denak 17:30tarako itxi egitten dabez, baina domeketan 16.00 arte zabalik egoten die. Herri gunetik kanpo margotuteko zebrabiderik gitxi egotiek be asko harrittu ninduen hasieran. Korrika egin biher da hemen bidie zeharkatzeko!

- *Mallabixe faltan botatzen dozu? Sarri etortzen zara?*

Bai, faltan botatzen dot, azken baten noberan herrixe, noberana da... jeje! Gabonetan juen nitzen ta Aste Santuen bueltatzeko asmue dauket.



Ander Olalde: “Oso erreza egin jata hemengo bizimodure egokitzie”

Ander Olalde 23 urte ditu. ‘Caminos, canales y puertos’ ikasketak egin ondoren, Madrillera jun da bigarren ziklue egittera.

- *Noiz arte geratzeko asmue dukezu?*

Gitxienez ikasturte hau eta hurrengue egon biherko naz hemen, 4. eta 5.mailie egiñ arte.

- *Egunerokotasunien zer eitten dozu?*

Gauza handirik ez... klasiek arratsaldetan daukaz, ta goixetan ahalegintzen naz egiñ biherreko gauza danak egitten. Baiña bazkarixe ipiñi, errekauek egiñ... Goiz erdi jueten da sarri! Iñoz tenisien jokatzien dogu, bizikletan ibili baitte... Madrilleko pelota klubien be apuntau naz, partidun batzuk jokatu dittuaz...

- *Nun eta norekin bizi zara?*

Txalet baten bizi naz beste bost ikaslekin: bilbotar bat, sondikar bat, algortako bat, napar bat, eta Txekia-ko bat.

- *Bizimodure integratu zara?*

Etxien gauezan gehixenok euskaldunek gara, gaiñera bi mutil aurretik ezagutzen nittun... Oso erreza egin jata hemengo bizimodure egoki-

tzie. Gaiñera danok ikasliek ixetera antzera gagoz, danok daukeguz egun libre berak, etxien jairen bat montatzeko orduen be ez da arazorik egoten... je, je.

- *Zer gustatzen jatzu gehixen hortik? Eta gitxien?*

Gehixen, lagun asko egin dittudala, leku ezberdin askotakuek. Gitxien, hemen dauen haixe hotza.

- *Ezerk harrittu zaittu?*

Madrilek hiri moduen harrittu nau orokorrien. Danetarik dago hemen, supermerkauek domeketan be zabalik egoten die, gauza pillo bat egin ahal da...

- *Mallabixe faltan botatzen dozu? Sarri etortzen zara?*

Noberan herrixe beti botatzen da faltan. Familixie, kuadrilakuek... Egixe esan ez naz askotan juen, barikutan gabera arte klasie eukitzen dot, eta orduen asteburue asko laburtzen jata. Zubixek aprobetxatzen dittut etxera juteko.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre



EURITTIAN ONDORIXUEK

Otsailien ziber egindeko eurittiegaittik hainbat luperixa egin die herrixen. Markiñeko bide zaharrien, Urkixan, Asuntzeko basopistan, eta abar, lur jausixek dagoz. Salamatun lurre kendu ahala, bidie barriro itxi egitten da eta lur mugimenduen ondorioz be, Apoittetik behera doien bidie guztiz itxitxe dago eta bertatik pasatzie ezifiekue da. (Argazkiak: Ibon Zubiarte)



SAHARARAKO HERRI LAGUNTZA

Saharako herriari laguntza emoteko 2013ko Elkartasun Karabana amaitu berri da eta Mallabiko herrixek oso esku-zabal jokatu dauela eta zoriontzeko lana egin dala adierazi dau Udalak. Herrira auzo elkartiek antolatutako aurtengo bilketa honek, aurreko kanpainetan baiño janari gehixago eruengo dattu Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararrentzako. Durangaldien guztire, Udal ezberdiñek egindeko 38.513€ko ekarpen ekonomikuez gain, 23.706 kilo janari, 170 kilo eskola material, 300 kilo arropa eta 60 kaja konpresa batu die. Lortutako diruaz traktore burue eta semi-remolkie erosi da. Durangaldeko kamioi hau, Bilboko udal-letxetik Euskal Herriko Karabana Solidarixuen beste bost kamioi-trailer, kamioi grua bat, bi kamioi zurrun, bi autobus eta furgoneta-anbulantzia batekin batera urten zan otsailan 16xen, guztire 180 tona janarirekin.

BIHARKO IZARRAK

Otsailaren 21ien emongo jako hasierie X. Biharko Izarrak Txapelketiai. Bertan Euskal Herriko eta Errioxako 24 pilotari gaztek parte hartuko dabe. Urtero lez partaidiok bikotekidiek aldatuz, danek danen kontra jokatute juengo da sailkapena osatzen. Partida guztixek Udal Pilotalekuen jokatu die otsailetik maiatza bitartien eguenetan gabeko 21:15ean eta zapatuetan arratsaldeko 17:00etan.

ARGAZKI LEHIAKETA

Mallabiko Udalak 'Mallabiko II. Argazki digitalen lehiaketa' antolatu dau. 16 urtetik gorako edozeinek parte hartu leike. Aurtengo gaixe "Beti zeozer egitten Mallabixen" da, eta argazkixok zuri-baltzien zein koloretan aurkeztu leikez. Lanak, 2013en egindekuek, 15x20 zentimetroko argazki papeliñ eta CDbaten jpg formatuen aurkeztu biherko die. Argazkixek Mallabiko Kultur Etxean aurkeztu biherko die apirilaren 19xe baino lehen gutunazal itxi baten. Kanpoko aldien 'Mallabiko II. Argazki digitalen lehiaketa' agertu biherko da. Argazki danek derrigorrez izenburue euki biherko dabe. Aparteko gutunazal baten, aurrekuan barruen, parte-hartzaillian izenabizenak eta telefonue agertu biherko da. Parte-hartzaillie bakoitxak gehixenez 10 argazki aurkeztu ahalko dattu. Maiatzeko azoka egunien jasotako argazki danen erakusketa egittiaz gain, eberdixen, sari banaketie egungo da. Sarixek: 1. sarixe: 350€. 2.a 150€ eta 3.a 50€.



IZOTZ
IZOZTUAK

 **ERMUA**
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

- Sagardotegiak, ezkontzak, jaiotzak, Errioxa, elurra, bidaia turistikoak...
- Profesionalak gara lantegietara, eskoletara eta kirol taldeak eramaten.

 **ALCONADA**
autobusak
610 28 39 39
busalconada@gmail.com

Preziorik onenean egingo dizugu aurrekontua *Eskaintza bereziak!*

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

Ferreteria/Burdindegi

 **ANBOTO**

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



Mezua

Korrika 18k 'Eman euskara elkarri' dio, euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko.

Dakienak ikasi nahi duenari irakatsi, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera eman, agintariek herritar orori ikasteko bideak erraztu... Denok dugu zeresana eta zeregina. Euskara denona da eta denontzat izan



Korrika Txikia, 2011.

18. Korrika

Martxoaren 20an
17:45ean Mallabian eta 18:10ean Ermuan

behar du. Kohesiorako lehen-gaia eta tresna.

AEK-ko kideok hizkuntza eta kultura bizien arteko bizikidetzat aldarrikatzen dugu, eta munduarentzat defendatzen dugun kultura aniztasunak bertako aberastasunaren errespetuan eta sustapenean oinarritu behar duela deritzogu. Horregatik dugu helburu euskararen ikaskuntzan eta erabileran oinarritutako elkarbizitza.

Euskara UNESCOren hizkuntza gutxituen atlasean dago. Hizkuntza bizia da, baina ahula da bere egoera, eta oso kezagarria lurralde batzuetan. Horregatik, botere publikoei dei egiten diegu euskara babesteko eta bultzatzeko neurriak ezar ditzaitez. Baita norbanako eta erakunde guztiei ere euskara ikasi eta erabili dezaten, eta bere aldeko testuinguru soziopolitikoak sortu dezaten.



Omenduak

Korrika 18k zabaldu nahi duen mezuan, euskara euskal herritarren elkarbizitzarako gakoa dela diogu, elkarrekin bizitzeko, elkarri hitz egiteko, elkarri entzuteko, eta elkar ulertzeko tresna. Baina horretarako, euskal herritarrok euskal kultura ezagutzea eta euskara jakitea beharrezkoa da.

Horregatik, Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak omendu nahi ditu. Euskalari izateko ahaleginetan euskara ikasten eta praktikatzan ari diren guztiak. Lanetik irtean euskara ikastera doazen Aitor eta Nerea, bilobak eskolan utzi eta gero euskaltegiara doazen Karmen eta Jose, euskara ikasten hasi den Yasmin, mintzalagun talde

batean dagoen Felipe, barnetegira doan Ximun, Gau Eskolan ari den Elisabete, Osvaldo, Ane...

Bere ahaleginarekin euskaraz bizi ahal izatea ahalbidetzen eta, beraz, elkarbizitzarako aukerak sortzen ari direlako, bihoakie egun euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren ikasle guztiei Korrika 18ren eta AEKren omenaldia.



Quetzal berria!!
[arropa, bitxiak, opariak...]
ekinetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

ERMUA

Otsailaren 19a, asteartea
-Hitzaldia: **Maite Goñi**, "Euskara eta teknologia berriak". 19:00etan Lobianon. Antolatzailea: Berbetan jardunaldiak.

Otsailaren 22a, ostirala
-**Korrika-triki-txikiteokide**. 20:00etan Hergatik. Antolatzailea: Berbalagun.

Otsailaren 23a, larunbata
-Korrikaren aldeko **Ermua Kantuan**. 12:30ean plazatik. Gonbidatuak: euskara ikasleak. Antolatzailea: Euskal Birusa.

Martxoaren 1a, ostirala
-**Korrika aurkezpen soziala**. 19:00etan Ermuko plazan. Antolatzailea: Kalxango AEK euskaltegia.

Martxoaren 2a, larunbata
-**Sagardotegia**. 12:30ean Bus geltokian (Lex). Antolatzaileak: Kalxango AEK euskaltegia eta Euskal Birusa.

Martxoaren 5a, asteartea
-Hitzaldia: **Juanmi Bravo**, "La importancia de la transmisión lingüística". 14:45ean Lobianon. Antolatzailea: Berbetan jardunaldiak.

Martxoaren 6a, asteazkena
-**Musika solasaldia Xabi Solanorekin**. 20:00etan Lobianon. Antolatzailea: Kalxango AEK euskaltegia.

Martxoaren 9a, larunbata
-**Mus txapelketa**. 16:00etan Infrerñun. Antolatzailea: Infrerñu taberna.

-**Bertso-saioa "Ez da kasualitatea"**. 20:00etan Lobianon. Antolatzailea: Ermuko Ernakumearen Udal Kontseilua.

Martxoaren 13a, asteazkena
-Hitzaldia: **Kike Amonarriz**, "21. mendeko euskara, nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!". 19:00etan Lobianon. Antolatzailea: Berbetan jardunaldiak.

Martxoaren 14a, osteguna
-**Laburbira**, film laburrak. 20:30ean Ermua Antzokian. Antolatzailea: Euskal Birusa.

Martxoaren 15a, ostirala
-**Antzerkia "Bodologoak"**. 22:15ean Ermua Antzokian. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Martxoaren 16a, larunbata
-**Kontzertua: Multa**. 22:00etan Infrerñun. Antolatzailea: Infrerñu taberna.



Ermua eta Mallabiko EGITARAUUA

Martxoaren 17a, igandea

-Ermua-Eibar **Xake txapelketa**. Ermuko plazan 11.00etan. Antolatzailea: Ermuko xake taldea.

Martxoaren 20a, asteazkena, KORRIKA eguna

-**KORRIKA txikia**. 15:30ean. Antolatzaileak: Anaitasuna, Eskolabari Ongarai eta Sallabente ikastetxeak.

-**Haur-berbena**, 16:00etan plazan. Antolatzailea: Udal Euskara Saila.

-**Txokolatada**, 16:30ean. Antolatzailea: Alargunen elkarteak.

-**Kalejira multi-musikala**, 17:00etan. Antolatzailea: Musika Eskola.

-**Larraidantza**. 17:45ean Zubiaren. Antolatzailea: Txindurri.

-**Kalejira: Irulitxa**. 19:00etan. Antolatzailea: Irulitxa.

-**Korrika afaria** (norberak berea ekarri). 20:30etik aurrera Ermuko merkatu plazan.

Martxoaren 22a, ostirala

-**Bertso-trama**: 22:30etan Infrerñun. Antolatzailea: Infrerñu taberna.

Martxoaren 23a, larunbata

-**Umeentzako antzerkia**. "Printzea eta ahatea", Gorakada taldea. 17:00etan Ermua Antzokian. Antolatzailea: Ermuko Udala.

-**Kontzertua: PAM**, "bost!" diskoaren aurkezpena. 20:00etan Lobianon.

Antolatzailea: Kalxango AEK euskaltegia.

MALLABIA

Martxoaren 9a, larunbata

-**Bertso afaria**: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin. Gai jartzaila: Beñat Ugartetxea.

22:00etan Izar gorri elkarteak. Antolatzailea: Izar gorri elkarteak.

Martxoaren 10a, igandea

-**Umeentzako zinea**. 17:00etan kultur etxean. Antolatzailea: Futbito taldea.

Martxoaren 15a, ostirala

-**Korrika aurkezpen soziala**. 19:00etan Zurrutokin. Antolatzailea: Mallabiko AEK.

Martxoaren 17a, igandea

-**Mus txapelketa azkarra**. 16:30ean Herriko tabernan. Antolatzailea: Izar gorri elkarteak.

Martxoaren 20a, asteazkena, KORRIKA eguna

-**Korrika txikia**. 15:00etan. Antolatzailea: Mallabiko eskola.

-**Triki-poteoa**. 19:00etan.

-**Korrika afaria** (norberak berea ekarri). 20:30ean Izar gorri elkarteak.

Antolatzailea: Mallabiko AEK.

Martxoaren 22a, ostirala

-**Monologoa**. 22:30ean Herriko tabernan. Antolatzailea: Izar gorri elkarteak.



OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Martxoaren 1etik aurrera,
VI Centenario 17an
egongo gara

40ra
arteko
zkiak.
ditugu

Arinka

Ume eta gazteentzako zapata-denda

Otsailaren 28ra arte
LIKIDAZIOA
Cardenal Orbe kaleko
zapata-dendan

VI Centenario 17
ERMUA · 943 17 41 26
(Doan zapata-denda ohian)

'ERMUAN KANTUAN'- EKO GONBIDATUAK EUSKARA IKASLEAK IZANGO DIRA

Euskal Birusa Elkarteak euskara ikasleak gonbidatu ditu otsailako 'Ermuan kantuan'-era. 18. Korrikako omenduak direla aprobetxatuta, herriko kaleetan barrena kantuan aritzeko proposamena egin die ikasleei. Hala ere, nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute otsailaren 23an, 12:30etik aurrera egingo den saioan.

MARTXOAREN 14AN ESKAINIKO DA LABURBIRA

Film Laburren X. Zirkuitu



Laburbira martxoaren 14an, ostegunean, izango da Ermuan, Topaguneak eta Euskal Birusak elkarrekin antolatuta. 8 film laburrek osatzen dute aurtengo programa, batez ere fikzio eta animaziozkoak, eta 8 lanetatik 3k saria jaso dute dagoeneko (Lekeitioko Zine Bileran eta Kimuak programan, besteak beste). "Gainera -diote arduradunek-, guztiak ere arrakastatsu suertatu ziren Durangoko Azokako 'Irdiarena' gunean erakutsi genituenean". Emanaldia Ermua Antzokian egingo da, 20:30ean hasita.

Artarraiko bazkideak Sierra Nevadara joango dira

Aste Santuan Granadara joateko gonbitea zabaldu du Artarrai Mendi Taldeak. Martxoaren 27tik apirilaren 1era bitarteko irteera honetan Mulhacén (3.478m.), Veleta (3.395m.) eta Alcazaba (3.371m.) mendietara igoko lirateke mendizaleak eta Granada hiria ikusteko aukera ere izango lukete Ermura bueltatu baino lehen. Parte hartu nahi duten bazkideek 190 euro ordaindu beharko dituzte eta Artarrai Mendi Taldeko bazkide ez direnek 225 euro. Diru horrekin bertarainoko autobusa, Poqueira aterpetxea eta pentsio erdia ordainduko litzateke. Plaza mugatuak daude eta izena emateko epea otsailaren 28an bukatuko da.



Lurpe tabernak irabazi du aurtengo Inauteri Lehiaketa

Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkarteak antolatutako IV. Tabernen Dekorazio Lehiaketaren irabazlea Lurpe taberna izan da. 'Antzinako Erroma'-z mozarrotu zuten taberna eta mozarro horri esker lokala zaharberri eta hobetzeko proiektua egiteko diru-kopurua

jasoko dute jabeek. Bigarren saria Titanic tabernak jaso du, 'Ozeko Aztia' ipuinaren

kopia egiteagatik eta horrek ere sari bera jasoko du, baina diru-kopuru txikiagoarekin. Guztira 7 taberne hartu dute parte lehiaketan eta horien artean, 'Harriketa familia', Bob Marley, 80. hamarkada, 'Bazen behin gizakia' eta karta-jokoa ikusteko aukera egon da. EMOEko zuzendaritzako kideek eta 2012ko erakusleihen lehiaketako irabazleek osatu dute epaimahaia eta besteak beste mozarroak egiteko sormena baloratu dute.



'Ermua Opina' taldeak gardentasuna eskatu dio Udalari

Ermuko zenbait herritarrek osatzen duten Facebook-eko 'Ermua Opina' taldeak gardentasuna eskatu dio klase politikoari. Talde horrek adierazten duenez, Udalaren kudeaketaren hainbat aspektuetan dagoen gardentasun eza dela-eta kezkatuta dago. Halaber, Udalak dietetan, ordezkaritza gastuetan, bazkarietan eta enpresen esleipenetan egiten dituen gastuak publiko egitea eskatu du. Udalak alkate, zinegotzi eta langile publikoen soldatak ezagutzera eman dituen arren, 'Ermua Opina' taldearentzat "informazio hau ez da nahikoa", udal aurrekontuetan agertzen diren zenbateko askoren inguruko daturik ez duelako eman (ekipo informatikoak, mugikorak, tablet-ak, mugikorrekoko gastuak, autoak, errengaiak, bidaiak, hotelak eta hileko nominak, besteak beste). Datu horiek 2010. urtetik aurrera hileka aurkeztea eskatu du taldeak.



Drogeteniturrri, 209 zkia.

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



SEHIGA



LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Euskal Birusaren izenean lekukoa eraman nahi duzu?



etorri (Erdikokale 2, 1.). Izena ematen duten bazkide guztien artean zozketa egingo da.

Aldizkari honetako erreportajearen irakurri daitekeenaren arabera, martxoaren 20an helduko da 18. Korrika Ermura, 18:10ean. Euskal Birusa Euskara Elkarteak euren bazkideei lekukoa eramateko aukera eman nahi die. Gogotsu bazaude, bidali mezua euskalbirusa@euskalnet.net helbidera, deitu 943179350 telefonora edo Elexostera

Euskara Sailak VI. Piropo Lehiaketa antolatu du

Parte hartu nahi dutenek piropoa, euren adina eta telefonoa paper batean idatzi eta Udal Liburutegira eraman beharko dute. Internet bidez ere parte hartu ahal izango da, euskara@udalermua.net posta elektronikora mezua bidalita. Ermuko Udaleko Euskara Saileko arduradunen arabera, "lehiaketa honen helburua ermuar guztion artean euskararen erabilera, modu sortzaile, adierazkor, ez-sexista eta ludiko batean bultzatzea da". Horretarako bi kategoria ezarri dituzte, 18 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat. Gazteek 100 euroko erosketa-txekea irabazi ahal izango dute eta nagusiek bi pertsonentzako La Perlako 'Sasoian Jartzeko Talaso Zirkuitua, Masajea Aromaterapiarekin eta Dastatzeko Menua' 'La Perla' Jatetxean. Piropoak martxoaren 12ra arte aurkez daitezke. Ondoren epaimahaiak piropoak aztertu eta erabakia hartuko du. Horretarako kontuan hartuko ditu, besteak beste, originaltasuna, sormena, luzera, itzulpena edo moldaketa ez izatea eta iraingarria edo sexista ez izatea.

Uni Eibar-Ermuko ikasleek proiektuak aurkeztu dituzte



Administrazio eta Finantzako Goi Mailako Zikloetako bigarren urteko ikasleek karrera-amaierako proiektuak aurkeztu dituzte otsailaren 13 eta 19a bitartean. Guztira 8 proiektu aurkeztu dira: 'Argona' (umeen aisialdirako parkea), 'Autotal' (autoen osagarriak), 'Zatika' (pizza-anoak), 'Gomar' (kautxu birziklatua), 'Mugitu osasunaren alde', 'Educanis' (txakurrak hezteko) eta 'Derkin' (trastelekuen alokairua). Aurkezpen horietan Debegesako Vanesa Hortasek parte hartu du, Ermuko

Udaleko Nerea Izagirrek, Eusko Jaurlaritzaren eta Tknikako Javier Unamunok, Tknikako Pili Diezek, Uni Eibar-Ermua BHIko zuzendari Javier Leonek eta Urrats-bat programaren baitan sortutako Ruibar enpresako Rubén Pedrazak. Horrez gain, lehen ikasturteko ikasle eta irakasleek parte hartu dute, tartean Urratsbat programako dinamizatzaile den Carmelo Oyarzabalek.



SAGARDOPEGIRA IRTEERA MARTXOAREN 2AN

Kaltxango AEK Euskaltegiak, Berbalagun egitasmoak eta Euskal Birusa Euskara Elkarteak sagardotegira irteera antolatu dute aurten ere. Autobusa 12:30ean irtengo da Agirre Kirolak-etik eta 20:30ean bueltatuko da. Izena eman nahi dutenek, AEKra jo beharko dute (943171940), Euskal Birusara (943179350) edo Infreñu tabernara.

DEBA-BEHEKO METALEKO DELEGATUEN PLANGINTZA AURKEZTU DA



Urtarrilaren 24an Deba Beheko metaleko delegatuen batzarra burutu zuen LAB sindikatuak. Honek hainbat ekimen antolatu ditu eta urtarrila eta otsaila bitartean horiei ekin die. Otsailaren 7an Gipuzkoako metalaren hitzarmenaren aldeko mobilizazioa egin zuten delegatuek eskualdeko herri eta industrialde guztietatik. Gipuzkoako enpresetan lana egiten duten 50.000 langile baino gehiagori ematen die babes hitzarmen horrek.

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Kike Amonarriz:

“Euskañola egitea ez da beti txartzat hartu behar”

Tolosan jaioa da. Euskal filologian lizentziatutako soziolinguista, umorista eta telebista-aurkezlea. Azken urteotan ETB-1eko Mihiluze programa aurkeztu eta zuzentzen du. Berbetan jardunaldien harira, beste behin, Ermuan izango da ‘Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!’ izenburua duen hitzaldiarekin, martxoaren 13an.

- Azken urteotan Mihiluzen ari zara. Zer nolako esperientzia ari da izaten?

Egia esan, oso pozik nago. Hitza eta hizkera oinarri dituen programa batek zortzigarren denboraldia osatzea itzela da. Hau planteatu zenean, kezka eta zalantza asko genituen euskararekin jolasten zuen programa batek euskaldungoan izan zezakeen onarpenaren inguruan. Sorpresa eta ilusio ikaragarria sortzen dizu 2.000 lagunetik gora pasa direla jakiteak.

- Zer ekarpen egin dio euskarari halako programa batek?

Gure asmoa hizkuntzarekin jolasteko modu asko dagoela agertzea da. Aberastasun handia dugula, aniztasun handia, kolore, zapora, usai diferente horiek erakutsi nahi izan dira. Hizkuntza jolasteko, sortzeko, puskatzeko dela eta hizkuntzarekin oso ondo pasa daitekeela erakustea.

- Telebistaz gain soziolinguistikari aditua zara. Gazteen hizkera hurbiletik jarraitu duzu...

Hizkuntzarekiko kezka betidanik izan dut eta ikaragarri interesatu zait hizkuntzarekin errealitatean zer gerta-

tzen den jarraitzea eta ez diskurtso teorikoetan oinarritzea. Kalera irten, kalea sentitu eta entzun, aztertu nola hitz egiten duten gure gazteek. Euskararen inguruan sortutako diskurtso batzuk ez datoz bat errealitatearekin eta horregatik zer gertatzen den aztertzea komeni da.

- Zertan egin da aurrera eta zertan atzera?

Azken hamarkadak kontuan izanda, atal askotan egin da aurrera, baina batzuetan ez da uste genuen bezain beste aurreratu. Atzera ere zenbait ataletan. Demografikoki euskaldun gehiago gara, erabilera igo da, esparru gehiagotan egiten da. Komunikabideetan daukagu, hezkuntzan ere txertatua dago, baina garai batean familian euskarak zeukan trinkotasuna edo hegemonia galdu du. Pitzatu egin zaigu, zaurgarriagoak edo bulnerableagoak bihurtu gara.

- Zein leku dauka euskarak fabebook, internet, teknologia berrietan?

Interneten hizkuntza erabilienak gutxi batzuk diren arren, euskara 50 hizkuntza indartsuenen artean dago. Eta ezin dugu ahaztu mun-



duan 7.000 hizkuntza ezberdin izango direla. Beraz, egiteko asko daukagu, baina oso ondo.

- Gurasoek zer egin dezakete honetan guztian?

Askok. Euskaraz dakitenek, euskaraz egin. Funtsezkoa da. “Zer ikusi hura ikasi” dio esaerak. Hizkuntzaren motibazioan ere bai asko egin dezakete. Euskararik ez dakitenen kasuan, minimo batzuetara iritsi beharko lirateke. Motibazioa landu, euskararen ikasketak jarraitu eta baloratu, haurrak euskarara hurbiltzeko aukerak sortu eta euskararen erabilera bermatu etxean eta etxetik kanpo.

- ‘Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!’ hitzaldiarekin zatoz Ermura. Nori dago zuzendua?

Euskararekin kezka duen orori. Gogoeta bat da azken

hamarkadan euskarak izan duen bilakaeraren inguruan. Egoera eta gure hizkuntza komunitatearen ezaugarriak nola aldatu diren, gaur egun euskararen inguruan zein ‘tribu’ diferente dauden agerrarazi. Adibidez, Ermua bezalako herri batean euskañolez egitea ezin dela beti txartzat hartu.

- Lehen ere gurean egona zara...

Hizkuntz ezagupen aldetik inguruko herriekin alderatuta maila apalagoa izan arren, beti euskararen aldeko dinamika izan duen herria da Ermua. Leku interesantea da ikusteko azkeneko urteetan zenbat aurreratu dugun eta aurrera begirako klabeak aztertzeko. Orain dela 30 urte egon nintzen lehen aldiz eta aurrerantz emandako aldaketa nabaria da.

Asier Ibaibarriaga

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Zure publizitatea...

drogeteniturri
aldizkarian

943 179 350
688 632 876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Unai Ramos, idazlea:

“Xehetasun autobiografikoak idaztea saihestezina da”

Txikitan hasi zen Unai Ramos (Ermua, 1974) ipuinak idazten. Abenturazko eleberrien irakurle sutsua zen eta 16 urterekin bere liburutegitxoaren etxean. Bost urtez Londresko inprentarik garrantzitsuenetan egin zuen lana eta azken 10 urteetan Getxon bizi da. Diseinatzailea da, baina bere denboraren zati handi bat idazteari eskaintzen dio gaur egun ere eta ‘El perfume de África’ horren adierazle da.

- ‘El perfume de África’ eleberriaren 3. edizioa argitaratu duzu aurten. Noiz idatzi zenuen?

1995ean ipuina idatzi nuen eta 2003an eleberri bihurtu nuen.

- Zer kontatzen duzu?

Bere osabaren atzetik Irlandatik Londresera joatea erabakitzen duen gaztearen istorioa. Bizitza berria topatuko du bertan eta baita eskurazina ematen duen emakumea, bere bizitza goitik behera aldatuko duena. Uneri goxoenean daudenean aspaldiko mamuak agertuko zaizkie eta euren bizitzak arriskuan ipiniko dituzte. Lehen pertsona idatzita dago.

- Oso urrun dago giroa. Zer dela-eta?

Eleberrian agertzen diren leku eta paisaiak ondtxo ezagutzen ditut. Oroitzapenak eta emozioak sorrarazten dizkirate eta beharbada horrek indar handiagoa ematen dio istorioari. Edozein idazleren lanetan xehetasun autobiografikoak egotea saihestezina da. Gainera, In-

galaterra herrialde txikia izanik, bidaia-zorok sinesgarritasun handiagoa dute.

- Nola eskuratu daiteke liburua?

Bubok-ek argitaratu du eta Internet bidez eskatu daiteke, 10 eurotan: ez da garestia! Liburu elektronikoak, berriz, euro 1 kostatzen du eta PDFak irakurtzen dituen edozein gailutan irakur daiteke. Amazonen ere badago, Kindle-entzako, euro bat baino gutxiago ordainduta.

- Interneten arazoak izan dituzu, ezta?

Bai, plagioarena batez ere. Oso erraza da liburu elektronikoa hartu eta salgai ipintzea, zuk idatzitakoa ez izan arren. Baina onartezina da. Asko kostatzen da liburu bat idaztea eta promozionatzea eta ez da bidezkoa beste pertsona batek, ezer egin gabe, hortik etekina atera nahi izatea.

- Nola konpondu dituzu arazo horiek?

Amazonen baimenik gabeko kopia saltzen zuen eta Bubok-ek hori erretiratzeko presioa



Ana Gómez Valero

egin zuen. Egund, e-Book ofiziala baino ezin da erosi.

- la 20 urte daramatzazu idazten. ‘El perfume de África’ idatzi duzun liburua bakarra da?

Ez, 18-20 urterekin ‘La niebla era muy intensa’ eta ‘Bajo su ventana’ ipuinak idatzi eta lehiaketa batzuetara aurkeztu nituen, besterik ez.

- Baina gaur egun idazten jarraitzen duzu, ezta?

Bai, bi eleberri ditut martxan. Bata, ‘Un cliente inusual’, thriller-a da eta San Valentin baino lehen argitaratu nuen. Bi eleberri horiez gain, ‘El perfume de África’-ren ‘prekuela’ idazteko asmoa daukat, baina enbriio-egoeran dago oraindik.

- Eta zer kontatzen du egun hauetan kaleratu duzun thriller horrek?

Polizia-nobela da, atzean oinarri erotiko handia duena, eta emakume bat du protagonista. Uste baino arriskutsuagoa den psikopata batek estortsioa egiten dio eta emakumearen eta haren semearen bizitza babesten saiatuko da dektibe pribatu berezi bat. Dena nahastuko da azpiko handi eta arriskutsu batean sartuta daudela ohar-tzean.

- Interneten salgai ipini duzu?

Bai, aurreneko eleberriaren webgune berdinetan eta prezio berean. Nire Facebook-eko guneak (www.facebook.com/unairamosescritor) jarraitzaile dezente ditut jada eta bertan arrastoak ematen joan naiz.

Dorleta Vidal



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarineta
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MATE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

MARI JOSE GOIOGANA

- **Nola oroitzen duzu zure gaztaroa?**

Pozik, beti jolasean lagunekin.

- **Parrandarik bai?**

Orain ezer ere ez, baina gaztetan bai. Gure garaian, Ermuan giro ikaragarria zegoen, ondoko herriko gazteak etortzen ziren eta tabernak jendez gainezka zeuden.

- **Berriz jaioko bazina...**

Gehiago ikasiko nuke, batxilergoa amaitzean ez nuelako besterik ikasi.

- **Zer egiten duzu goizean?**

7:20an altxatzen naiz, egurra hartu, txapa piztu, bazkaria prestatu, eta etxeko txikia altxatzen dut ikastolara eramateko.

- **Goizean goiz altxatzea errito bilakatu da...**

Otsaileko asteburuetan salbu, karrerarik ez dagoelako.

- **Amets bat?**

Nire seme-alabek nahi dutena lortzea. Xabierrek eta Peiok ziklista izan nahi dute...

- **Zer paper jokatzan du kirolari baten amak?**

Babes guztia eskaintzen diet eta euren argazkilaria ofiziala naiz (barre artean).

- **Txirrindularitzari esker...**

Asko bidaiatu dugu. Txekian, Holandan, Belgikan, Valencian, Madrilan, Valladoliden, Zamoran, Galizian, Asturiasen eta Kantabrian ibili izan gara, besteak beste.

- **Txirrindularitzak alde txarrik badu?**

Bai, oso kirol gogorra da, ziklistak asko zaindu behar dira, eta garestia da, baina merezi du!



Duela 49 urte jaio zen. Etxeko andrea eta, beste hainbat gurasokin batera, Ermuko Txirrindulari Eskolako laguntzailea da. Zortzi anai-arreben artean bera da zazpigarrena. Hiru seme-alaba ditu Mari Josek: Peio, Xabier eta Mayi.

- **Zer diozu dopinaz?**

Kirol askotan gertatzen da.

- **Zertan datza ziklismo eskolako laguntzailearen lana?**

Umeak ziklismoan apuntatzeko paperak eramaten ditut ikastolara, senarrak eta biok larunbat goizetako entrenamenduak moldatzen ditugu, eta ahal dugunetan igandeetako karreretara jotzen gara.

- **Nola lasaitzen duzu zure burua?**

Eskulanak eginez eta irakurriz.

- **Gustuko dituzun eskulanak ...**

Margotzea, panpinak egitea, 'punto'a, 'gantxillo'a... Denetarik!

- **Liburu aipagarrik?**

Ez naiz liburuen tituluekin akordutzen, baina beti gogoratzen dut Gabriel García Márquez-en 'La increíble y triste historia de la cándida Eréndira y su abuela desalmada'.

- **Biziorik?**

Txokolatea.

- **Kolore bat?**

Laranja, eskulanak egitean gehien erabiltzen dudana.

- **Nahi baina egin gabeko hori?**

Finlandia eta Norvegiara joatea gustatuko litzaidake, ezkondata daramagun 25. urteurrena ospatzeko.

- **Maitasunari eusteko errezeta?**

Elkar maitatzea.

- **Enamoratuena eguna ospatzen al duzue?**

Otsailaren 14an ospatzen duguna da Peio jaio zela.

- **Mendi bat?**

Mendi asko aipatuko nintuzke lehen mendizalea nintzelako: Pirinioak, Picos de Europa, Mont Blanc... Baina bereziki, Pirinioak, zoragarriak dira!

- **Zer da egunero kale egin gabe egiten duzuna?**

Egunero kirol pixka bat egiten saiatzen naiz.

- **Musika...**

Opera, reggae, country, zarzuelak...

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Leialtasuna.

- **Eguneko unerik gozoena?**

Ohera sartzean.

- **Zerk kentzen dizu loa?**

Lo nahiko ondo egiten badut ere, zer edo zer txarto irteteak kentzen dit loa.

- **Gomendio bat?**

Umeak ziklismoan apuntatzea, horrela gurasoak ez dira 'botelloiaz' kezkatuko.

- **Zer falta da Ermuan?**

Berdegunak eta belodromoak.

Leire Elustondo



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Ermuko kirolariek maila ona erakutsi dute Euskadiko txapelketan

Ander Santosek eta Irene Pérezek Euskadiko Txapelketa Absolutuan hartu dute parte otsailean. Anderrek urrezko domina lortu du 800 metroan eta Irenek brontzekoa altuera jauzian. Lolo García entrenatutako gazte hauek hizpidea emango dute aurrerantzean.

Ander Santosek 12 ordu inguru entrenatzen ditu as-tero Betiondoko instalazioetan. 1,95 metroko altuera du, 18 urte ditu eta otsailaren 16an Euskadiko Atletismo Junior Txapelketan parte hartu zuen. *Drogeteniturrri* inprentara bidaltzerako orduan emaitza ez genekien arren, aurrekariak ikusia, ondo arituko zela pentsa daiteke.


Otsailean burutu zen Euskadiko Txapelketa Absolutuan 1'59",64ko marka egin zuen, garaipena lortuta. *"Iaz sasoi hobeagoan egon nintzen"*, dio Anderrek eta hori entrenamenduen esku dago.

Aurten Armeria Eskolan mekanizatu gradua ikasten hasi da. *"Nire asmoa entrenatzen jarraitzea da eta urtetik urtera nire bilakaera ikusten joatea, nire helburuak zeintzuk izan daitezkeen zehazten joateko"*. Kiro-lak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dion arren, gustukoa du eta Espainiako txapelketa absolutuan parte hartzea gustatuko litzaioke, *"baina horretarako asko entrenatu behar da, ia-ia horretan bakarrik aritu"*, azpimarratzen du.

Irene Pérezek, bestalde, altuera jauzian eta eskubaloian jokatzen du. Espainiako txapelketan 4. izan zen altuera jauzian iaz kadeteetan eta aurten 3. postua eskuratu du Euskadiko jubencil mailan. Martxoan, berriz, Antequeran (Malagan) ospatuko den Espainiako txapelketara joango da, eta zaila izango bada ere, itxaropen tsu dago. *"Iaz 1,64m.ko marka nuen eta aurten 1,55m. inguruan nabil. Baina badakit hemendik aurrera hobetzen hasiko naizela"*.

16 urte ditu, baina kirola serio hartu nahi badu, baliteke datorren urtean atletismoa eta eskubaloien artean aukeratu behar izatea. *"Zaila da esatea, baina beharbada atletismoa aukeratu nuke"*, dio Irenek. DBHko laugarren mailan dago, Anaitasuna Ikastolan eta bere helburuak kirolean nahiko argi ditu: *"Ni hona ez nator irabaztera, ondo pasatzen nator. Eta irabazi ahal badut, primeran!"*, eta aurrerantzean aukeratu dituen ikasketen inguruan ez daki zer esan: *"Aktore izan nahi dut, baina ez dakit..."*.

Dorleta Vidal



Zer dio Lolo García entrenatzaileak?

Ander 'makina' hutsa da! 7 urte daramatza nirekin entrenatzen baina, pena ematen dit futbola lehena-go utzi ez izatea, zapaltzeko duen era eta muskulatura zuzentzea asko kostatu zaidalako. 800 metroko lasterketan ez dauka parekorik ez Euskadin ezta inguruetan ere. Baina Espainian oso jende ona dago 800etan! Horrez gain, langilea da, zintzoa, umila... Entrenamenduetan ez du sekula trabarik ipintzen! Dena egunean egiten du eta eman dezakeena baino gehiago ematen du egunero.

Irenek txikitatik entrenatzen du nirekin eta nire gustura moldatu dut. Parametro onak zituen hasieratik: hanka luze eta muskulatuak. Baliteke altuera jauzia egiteko altuegia ez izatea, baina oso gaztea da eta maila ona du. Eskubaloian jokatzeak ez dio mesede egiten, entrenamendu ostean ez daukalako errekupe-ratzeko denborarik, baina hor ezin naiz sartu... Txarrena? 'Mala letxe' gehiago beharko lukeela txapelketan, anbizio handiagoa. Bestalde, oso alaia da, etorrri eta taldea hankaz gora ipintzen du!

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Baina, Korrika... zergatik?

Lehenengo eta behin... definizioa: Korrika, AEK-k antolatua, Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Euskararen kontzientzia suspertzea eta AEKren euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

"Oraindik ere euskararen aldeko kontzientzia piztu beharra dago? Ez ote dago euskal jendartea euskararen alde?" galde diezaioke jende askok bere buruari. Egia da, inkestetan-eta, gure herrian adostasun handien jasotzen duen gaia dela euskara. Jarrerarik muturrenek ere euskara babestu behar dela esaten dute. Kontua baina, nola eta zenbatean datza. Izan ere, Euskara UNESCOren hizkuntza gutxituen zerrendan dago. Honek esan nahi du, hizkuntza bizia dela, baina baita ahula eta desagertzeko arriskuan dagoena ere. Beraz, ez du soilik ba-

lio euskararen alde egoteak edota euskara babesteak. Hizkuntza bizia izaten jarraitzeko dirua ez ezik, erabilia ere izan dadin behar dugu. Eta, horregatik eta horretarako, jendea kontzientziatu beharra dago.

Bestetik, zenbait lagun eta eza-gunek zera galdetu izan didate inoiz, "baina ikasleei kobratutako matrikula sariarekin eta Jaurilaritza-tik jasotakoarekin ez al da nahikoa?" Bada, beste hainbat euskaltegitan baliteke nahikoa izatea. Gurean, ordea, ez. AEK zazpi lurralde-etan euskara irakasten aritzen den erakunde bakarra da, jakina, honek ez du ezer garestitzen. Galera, tokian tokiko diru-laguntza ezetik dator, zazpi herrialdeetatik bakarrik hirutan jasotzen baita eskupekoa ez den diru-laguntza. Eta, lagunok, zilegi iruditzen zaigulako, irakasleok AEK-n berdin kobratzen dugu, Bizkaian zein Nafarroan, Araban nahiz



Juanmi Bravo

Lapurdin. Era berean, ikasleek berdin ordaintzen dute Tuteran zein Plentzian, Usurbilen nahiz Donapaulen. Eta honen guztiaren ondorioz, berdin kobratu baina ezberdin jasotze horrek gure aurrekontuetan desoreka dakar, edo beste era batera esanda, zulo ekonomikoa.

Horrexegatik, hain zuzen, behar izaten dugu Korrika antolatu bi urtetik behin, ezinbestekoa baitugu milaka lagunaren esfortzutik ateratako diru poltsa handi hori. Ezin baitugu hainbat herrialdeetako ikasleak euskara ikasteko aukerarik gabe utzi, horrela erabaki dutelako zenbait politikarik.

Horrenbestez, hamazortzigarrenez, martxoaren 14tik hasita, hamaika egunez eta gelditu gabe, Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du...

Berdin kobratu baina ezberdin jasotze horrek desoreka dakar, beste era batera esanda, zulo ekonomikoa

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



MUGA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€),
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itxita)

ALOKAIRUAK

Pisua alokatzen da Mallabian.
3 logela eta trastelekua.
© 617637886



Otsailaren 16an
Zorionak etxekoan partez, batez ere, Haitz eta Xabaten partez. Segi horrela aittitta!!!



Otsailaren 7an
Zorionak Xabat zure 1. urtebetetzean etxeko denon partez, txokolatzeko muxuak! Horren jator izaten jarraitu ezazu!



Otsailaren 11n
Zorionak Izai Haitzen partez! Soinu eta panderoa jotzen hain alai jarraitu beti!



Otsailaren 27an (Alicia)
eta martxoaren 1ean (Telmo)
Musu handi bana etxekoan partez. Ondo pasa lehenengo urtebetetzean... elkarrekin. Zorionak!!!



Martxoaren 12an
Zorionak Maddi zure 2. urtebetetzean zure amamaren partez!



Otsailaren 23an
Zorionak Leize zure 2. urtebetetzean. Musu handi bat marimatraka. Aitatxo, amatxo eta Maddi.



Martxoaren 9an
Zorionak Maitane zure 10. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu handi handi bat Aimar, aita eta amaren partez.



Martxoaren 12an (Eder)
eta 5ean (aita)
Zorionak aita eta Eder, ama, amama, izeko ta aittiteren partez. Musu asko.



Otsailaren 22an
Zorionak Olatz!! 10 urte!! Muxu handi bat zure lagunen partez.



Otsailaren 20an
Zorionak Beñat zure 5. urtebetetzean etxeko eta kalekoan partez!!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
MARTXOAREN 13a

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

hamburguesería
TITANIK

*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

MALLABIA 1987

Argazki hau Mallabiko eskolan aterata dago.
Goian: Mikel Garitaonandia, Aitor Aldape, Arkaitz Erkiaga, Mikel Solozabal eta Gorka Arrizabalaga. Erdian: Mikel Narbaiza, Arkaitz Ugartetxea, Iñigo Pradera, Oihana Onandia eta Eurne Gallastegi. Azpian: Susana Fernandez, Saioa Astarloa, Iratxe Pradera, Naiara Txakartegi, Ainhoa Solozabal eta Mainer Arriaga.



ERMUA

1982



Zutik, ezkerretik hasita: Luis Olano, Oskar Morales, Ismael Durán, Igor Astarloa, Xabi Iturriagagoitia, Isaak Olano, Iñigo Gimeno eta Julián Mayora. Behean, ezkerretik hasita: Sergio Sánchez, Aritz Ramírez, Oier Mayora eta Iban Jauregi.

ENGLISH FUN!

INGELESEZKO
KANPAMENTUA
FORMIGALEN

8 eta 15
urte
bitarteko
umeentzat

Ekainaren 30etik uztailaren 13ra

Bizitza beste hizkuntza batean proba ezazu!

Akerlei
idiomas

Bizkaia etorbidea 5 - Ermua
943 176632 akerlei@akerlei.com

BERRIKUNTZAK

4-5 URTEKO UMEENTZAKO INGELESA:

Astearteetan, 18:00tik 19:00ra.

4-5 URTEKO UMEENTZAKO FRANTSESA:

Asteazkenetan, 17:15etik 18:15era.

'ONE TO ONE':

Zure neurrira egindako ikastaroak.

2013ko bigarren hiruhilekotik aurrera Zubiarrre kalea oinezkoentzat izango da eguneko 24 orduetan. Garraiolarien lana errazteko, zamalanak egiteko bi gune berri ipiniko ditu Udalak: Zubiaurre 2 eta 4 peoren aurrean (Herga tabernaren ondoan) eta Karabixan (Orbe Toldoen ondoan).

**Honen berri ba al zenuen?
Zer iruditzen zaizu?**



Jendeak lasaiago paseatuko du baina merkatarioi ez datorkigu batere ondo: banatzaileek merkantziak ekartzeko zailtasunak izango dituzte. Bestalde, Ongarai, Sallabente edota Mallabiko bezeroak kotxean datoz askotan eta, behar bada, beste leku batzuetara joango dira, aparkatzeko erraztasunak ematen dizkieten herrietara. Beste aukera batzuk bazeudela uste dut.

David Gómez, 30 urte



Orain arte ez dut ezer entzun eta egia esan berdin dit: ez naiz hemendik askotan pasatzen. Dendariak eta, batez ere, banatzaileak izango dira kaltetuak.

Laura Luque, 43 urte



Ez nuen honen berri, baina alde batetik ondo iruditzen zait peatonalizatzea eta paseatzeko leku gehiago egokitzea. Dendariei ez zaiela hain ondo irudituko pentsatzen dut.

Julián Moya, 44 urte



Guri oso txarto datorkigu kalea ixtea, askotan arrainak dendara ekartzeko denda zabalik utzi behar dugulako. Herri honetan zuria eta beltza baino ez dago, grisik ez. Jarleku eta zuhaitzez gain, herri honek bizitasuna behar du, dendak behar ditu eta dendak itxi nahi dituztela dirudi.

Mari Cruz Astola, 65 urte



- Goizetan zerbait pasatzen da Zubiaurren...

-Bai, ikusi dut, txinga-proba baterako entrenatzen egongo dira!

ZINEA

2tik 4ra.

9tik 11ra.

16tik 18ra.

23tik 25era.

30tik 1era.

Zehaztu gabeko filmeak.
Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 3.

Hilak 10.

Hilak 17.

Hilak 24.

Hilak 31.

Zehaztu gabeko filmeak.
17:00etan.
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 7.

Hilak 14.

Hilak 21.

Hilak 28.

Zehaztu gabeko filmeak.
20:30ean.
Ermua Antzokian.

MUSIKA

Hilak 2:

Jaialdia: Andaluziako eguna. Pispillu Abesbatza, El Rocío dantza taldea eta El Sarao flamenko taldea. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

Hilak 16:

Blues kontzertua: Julie Guravich & Victor Aneiro's Band. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

Hilak 16:

Rock kontzertua: Multa. 22:00etan. Infreñu tabernan.

Hilak 22:

Kontzertua: Jarabedepalo. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 23:

Kontzertua: PAM ('Bost!' disko berriaren aurkezpena). Sarrera dohainik. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 30:

Kalejira: Ermuan kantuan. 12:30ean. Plazatik irtenda.

ANTZERKIA

Hilak 1:

'Santa Perpetua', Micomicón taldearen eskutik. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 8:

'Juicio a una zorra', Carmen Machiren eskutik. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 15:

'Bodologuak', Txintxeta Produzioen eskutik. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 8€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 2:

Haurrentzako ipuin-kontaketa: Oihane Etxegibel. 17:30ean. Liburutegian.

Hilak 20:

Korrika txikia: Haur berbena, txokolatada, kalejira multimusikala, 15:30etatik aurrera. Plazan.

Hilak 23:

Haurrentzako antzerkia: 'Printzea eta ahatea', Gorakada taldearen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

ERAKUSKETAK

Hilaren 3ra arte:

Margoak: Fernando Fernández.

Hilaren 4tik 17ra:

Margoak, marrazkiak, diseinuak: Idoia Sáez. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilak 6:

Hitzaldi-musikatua Xabi Solanoren eskutik. 20:00etan. Lobianon. Sarrera dohainik.

Hilak 9:

Bertso-saio musikatua: 'Ez da kasualitatea', Ainhoa Agirrezaldegi, Uxue Alberdi, Onintza Enbeitia eta Alaia Martinekin. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 5€

Hilak 20:

Korrikaren harrera: Larraindantza, kalejirak, afari herrikoia 17:45 etatik aurrera. Plazan eta Zubiaurre kalean.

Hilak 22:

Bertso-trama. 22:00etan. Infreñu tabernan.

Patxi López

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

Euskal
Birusa
Elkartea




facebook®

 1.141

www.facebook.com/euskalbirusa

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktua
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net

PINTURAK

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**

- MONTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

ARROZTEGIA

iraner
Puercas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 iranercb@gmail.com

TAILER MEKANIKOA

AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.

- Kamioia
- Furgoneta
- 4 x 4
- Makinaria

Tel.: 943 17 51 00
areitio@areitiomotor.com
www.areitiomotor.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com